



07

KULTURAREN ETA EUSKARAREN KUDEAKETA

>>>

HIZKUNTZA KOMUNITATEAK ETA KULTURA EUSKARA ELKARTEEN IKUSPEGITIK

Karmen Irizar

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioko lehendakaria

Helbide elektronikoa: bulegoa@topagunea.com

Kultura bezalako kontzeptu zabala ez da erraza definitzen, nahiz eta gure eguneroko bizitzako parte den eta giza portaeretan hainbeste eragiten duen. Hizkuntza komunitate guztiek dute zuzenean berauekin lotuta dagoen kultura bat eta jendarte gehienek hainbat kultura ezberdinen eragin zuzena dute. Kultura guztiek dituzten ezaugarri komunak zerrendatu eta tokian tokiko berezitasunak aipatu eta azal daitezke, baino definizio bakarra hertsiegia litzateke denboran zehar eta batetik bestera hain aldakorra den zerbait azaltzeko. Hala ere, kultura bat osatzen duen ezaugarri aniztasun horren artean badira komunitate baten identifikaziorako pisu berezia hartzen duten berezitasunak eta euskara elkartearen ikuspegitik hizkuntza (euskara) da euskal komunitatea identifikatzen duen ezaugarriarik behinena.

Hortaz, hizkuntza komunitateen ikuspegitik landu nahi genuke gaia guk. Hizkuntza kulturaren erdian jarri eta definizio bila baino, euskal kulturaren eragiten duten faktoreek eta euskara elkarteek zein Topaguneak kultur sorkuntza eta hedapenean duten egitekoaz arituko gara.

A) KULTURARI ZUZENEAN LOTUTAKO FAKTOREAK

Badira kultura guztietan komunak diren ezaugarriak, kultura biziko bada ezinbesteko diren faktoreak.

1.- Hizkuntz komunitateen baitan sortzen dira kulturak. 'Hori euskalduna da' esanda hizkuntzak komunitate bereko egiten gaituela esaten dugu, ez hobe ez txarrago, euskaldun baino ez. Muga politiko eta fisiko-etatik haratago, hizkuntza bereko kideek euren komunitatea antolatzeke modua da kultura, harremanak zehazteko moduak, komunitatearen kezak, beldurrak, joerak biltzen ditu kulturak. Horren adierazle dira erritotak, ohitura, mitologia eta gizartearen antolaketa, besteak beste.

2.- Munduko pertsona guztiak bizi duten esperientzia bakanetako bat da. Jaiotzatik heriotzara iritsi arte modu batean edo bestean kultura ezberdinen eraginpean murgilduta gaude, berauetatik elikatzen gara eta horietatik guztietatik jasotako ikuspegiz antolatzen dugu bizitza.

3.-Kulturak gugan eragina duen eran, guk ere eragiten dugu kulturari, uneoro sortu eta moldatzen baitugu. Kultura ezberdinetatik jasotzen dituen joerak hartu eta moldatuz, komunitateek arazo edo bizipenen aurrean jokatzeko duten moduak egokitzen ditu kulturak egun egun. Norabide bikoia da beraz pertsonen eta kulturen artean dagoen harremana, kulturak komunitatearengan eragiten baitu eta komunitateak ere eragina baitu kulturarengan.

4.- Kultura guztietako aro guztietan sortu dira molde, kolore eta forma ugariak kultur adierazpenak. Batzuk hizkuntzaren bidez sortutakoak (literatura, bertsolaritza, antzerkia, abestiak,..) eta besteak hizkuntzaren presentziarik ez dutenak (irudiak, musika bidez emandakoak, pintura, eskultura, sinfoniak,...).

5.-Kultur adierazpenok hainbat funtzio betetzen dituzte.

- Funtzio soziala: komunitateren barruko dinamikak gizarteratzeko balio dute. Kantu protestak deritzanak, adibidez, gizarteak momentu horretan duen min edo kezka baten adierazpenak dira.
- Identitate sortzaile: hizkuntzak lehenengo eta hizkuntza horretan kultur adierazpenek sortzaile eta hartzailearen arteko lotura sortzen dute. Kode bera dute eta badute elkarren berri, badakite zertaz ari diren, zer adierazi nahi duten, zergatik egiten den zerbait. Adibide sinplea jarrita, Wazemank saioko "daiola" atalean euskaldunok badakigu zertaz ari den. Badakigu bokadiloa jaten ari garela koipea dariola egotea zer den. Kultur erreferentzia berdinak ditugu eta horrek lotzen gaitu.
- Funtzio erreferentziala: pertsona orok ditu bere erreferentzia propioak (gurasoak, lagunartea, lankideak,...) eta horiekin batera bizi den komunitatearentzat komunak diren beste erreferente

Kultura bat osatzen duen ezaugarri aniztasun horren artean badira komunitate baten identifikaziorako pisu berezia hartzen duten berezitasunak eta euskara elkarteen ikuspegitik hizkuntza (euskara) da euskal komunitatea identifikatzen duen ezaugarriarik behinena.

Horrela esanda irudi luke zenbait eta produktu hobea eginda orduan eta jendea gehiago erakarriko duela kulturak, baina dinamika bestelakoa da oso. Produktuak sortu eta ematea ez da nahikoa kulturak galdu ahal izan dituen funtzioak berreskuratzeko edo indartzeko, kulturatik kanpo geratzen diren faktoreek eragin itzela dutelako gutako bakoitzarengan, ohartzeko ez bagara ere.

batzuk osatzen dute gutako bakoitzaren kode erreferentziala (kulturgileak, ekintza bereziak, errito bereziak, gizartearentzako garrantzitsuak izan diren norbanako zein taldeak,...). Guzti horiek gure kodean txertatuta taldeko kide sentitzen gara, besteekin harremanetan jartzen gara, komunikatu egiten gara...

- Funtzio emozionala: kultur ekintzen bitartez jendeak emozioak kanalizatzeko modua du. Sortzaileak komunikatu nahia eta beharra asetzen du eta hartzaileak erantzun egiten dio. Gertuko sentitu ohi du hartzaileak, oso berea, ederra batzuetan, amorragarria bestetan, baino oso etxekoa beti. Haserretu egingo da, irri egingo du, malkoek ihes egingo diote agian, plazerez gozatu du... Batoren zein bestearen emozioak dantzan jartzen dira eta komunikazioa gertatzen da.

- Funtzio komunikatiboa: Kulturak eskaintzen dizkigu sarri komunikaziorako tresnak. Horren adierazle dira komunitate batean eta bestean elkarren arteko harremanak bideratzeko ditugun kode eta modu ezberdinak. Kultur adierazpenek kode horiek jasotzen dituzte sarri.

B) KULTURARI ERAGITEN DIOTEN KANPO FAKTOREAK

Badira kultura bakoitzari eragiten dioten kanpo faktoreak, besteak beste:

1.- Ondoko kulturak. Hizkuntza komunitateak ez dira isolatuta bizi, ondoko komunitateekin etengabeko harremanean izaten dira, eta ondorioz baita haien kulturekin ere, haien ikusmolde eta kultur adierazpeneekin ere. Elkar elikatzen dira, bata bestearengandik ikasi eta aberasten dira.

2.- Faktore politiko eta ekonomikoak. Elkarrengandik oso urrun dauden kontzeptuak direla ematen duen arren, ukazina da politika, ekonomia eta kulturaren arteko elkarreragina oso handia dena. Kulturak eragina du daukagun antolamendu politiko-ekonomikoan eta era berean, hauek eragina dute kultura baten hedapen eta garapenean, onerako batzuetan, txarrerako nahi baino gehiagotan. Erabaki politikoak baldintzatu izan dute hizkuntz baten etorkizuna, hizkuntz komunitate baten irudia...

3.- Faktore teknologiko-komunikatiboak. Esan bezala, beti egon dira kulturak harremanetan, baina ez dira sekula egon gaur bezain esku-ragarri. Pertsona gehienek bi edo hiru hizkuntza ikasi eta gutxieneko maila batean erabiltzeko gai garen egunotan iturri asko dago edateko. Teknologi eta komunikazio bide berriei esker, kultur erreferente asko dugu arreta jartzeko, hizkuntza asko gure sorkuntza bideratzeko.

C) EUSKAL KULTURAREN EGOERA ETA EUSKARA ELKARTEEN EGITEKOA

Kulturaren baitako faktoreek lotura eta indar handia sortuko badute ezinbesteko da kulturari aitortzen dizkiogun funtzioak betetzea. Horrela gertatzen ez bada, kulturak bereak dituen funtzioak beste kultura batek, beste kultur erreferente batzuk eta beste hizkuntza batek betetzen dituztela esan nahi du.

Euskaldunok interneteko leihotik datorren uholdeaz gain bi kultura indartsu ditugu bizikide. Bidaide onak izan zitezkeen arren, historiari bestelakorik esaten du eta askotan saiatu izan dira neurri politikoen bidez, inposizioz, euskal kultura baztertzen. Irakurketa herrena litzateke, dena den, zapalketarena bere horretan utziz gero. Egoera hobea izan zitekeela aitortuta ere, duela urte batzuk baino askoz hobea da XXI. mendean bizi duguna. D eredua etengabe ari da gora egiten, duela 20 urte baino 200.000 lagun gehiagok daki euskaraz, kultur produkzio oparoa dago esparru guztietan, euskararen aldeko jarrera hazi da eta euskararen aldeko lanean inoiz baino talde eta norbanako gehiago dabil.

Duela 200 urte ez bezala, kultur erreferenteak aukeran ditugu euskaldunok. Eskolan eta eguneroko bizitzan euskarazko, gaztelaniazko, frantseseko eta munduko beste kultura askotako erreferenteak ditugu. Zergatik aukeratu beharko luke inork euskaraz bizitzea, euskal kultura hartzea, euskaraz sortzea?

Euskararen aldeko hautua egin dugunok, edo euskaraz bizitzeko modua izan dugunok, hizkuntz komunitate horretako garelako eta izan nahi dugulako aukeratu dugu. Euskal kulturak erakartzen gaitu euskal kulturgileekin komunikazioa erraza delako, geure buruz ikusten dugulako emanaldietan, beste hartzaileen tribuko sentitzen garelako, gure mundu afektiboa, besteekiko harremana eta geure buruarekiko harremana erosoan eta errazen horrela egiten dugulako, euskarak izaten laguntzen digulako.

Euskara elkarteek bizipen hori transmititu nahi dute kultur eskaintzaren bitartez, euskarazko kultur adierazpenen sorkuntza eta hedapenean eraginez nagusiki. Euskarazko emanaldiak programatzen dituzte, ez euskaraz direlako bakarrik, euskaraz izateak euskal komunitatearen erreferente egiten dituelako, komunitate bezala bizi ditugun kezka, arazo eta ikusmoldeak erakusten dituelako eta, nola bizi garen erakutsi nahi dutelako. Euskaraz egiten dugunoi, euskaraz bizi garenoi, euskaraz bizi nahi dugunoi, euskal komunitatearen ateko giltzak eskaintzen dizkigute euskara elkarteek.

Kultura guztiek egiten dituzte emanaldi, kontzertu eta bestelako kultur adierazpenen agerraldiak; handiak, garestiak, ikusgarriak eta harrigarriak askotan. Euskara elkarteek ez dute ezaugarri horietakorik egiteko ez indarririk ez bokaziorik. Handitasuna eta erakusgarritasuna baino hurbiltasuna eskaintzen dute, jendearen kezka plazaratzen dituen ekitaldia, jendeari gozamina ekarriko dion saioa.

Horrela esanda irudi luke zenbait eta produktu hobea eginda orduan eta jendea gehiago erakarriko duela kulturak, baina dinamika bestelakoa da oso. Produktuak sortu eta ematea ez da nahikoa kulturak galdu ahal izan dituen funtzioak berreskuratzeko edo indartzeko, kulturatik kanpo geratzen diren faktoreek eragin itzela dutelako gutako bakoitzarengan, ohartzen ez bagara ere. Jendeak ez du musika ingelesa entzuten euskal musika gustatzen ez zaiolako, baizik eta hori delako eskuragarrien duena, publizitate gehiena eman eta sortzen duena, mundu anglosaxoiko erreferente kulturalak ez zaizkiolako arrotz egiten, munduko “lingua franca” nagusia ingelesa delako,... Horrelako erauntsiari ezin zaio eutsi kultura programatuz bakarrik, irakurketa kritikoa egiten hasi beharko genuke. Kultur arloan prestatzen hasi, geure buruari galderak egin, kultura nola, zertarako, norentzat, zer harreman izan beharko genuke *handi* deritzan albo kultura horiek...

Sorkuntzan eta zabalkundean bide zabala jorratu dute euskara elkarrekin eta Topaguneak. Sorkuntzari dagokionez eragile izan dira euskara elkarrekin bertso eskolak, abesbatzak, antzerki taldeak, dantza taldeak, pailazoak, graffiti idazleak, Dj-ak eta bestelako kultur talde eta kultur eragileak sortzen. Topaguneak bere aldetik, gazte sortzaileei plaza eman nahi izan die azken lau urteetan gazte kultur zirkuituak eta gazte sortzaile sariak antolatuz, besteak beste.

Zabalkundearen alorrean hainbat ekimen, ekitaldi eta zirkuitu dauka martxan: Kultur Errota 1500 emanalditik hurbil (100 kultur gile, harrobi lana, zabalkunde handia), film laburren zirkuitua (euskarazko zine produkzioak zirkuitua izan dezan), irakurle txokoak, aste eta hamabostaldiko kulturalak, ikastaroak...

Prestakuntzaren alorra landu dugu gutxien orain arte, sorkuntza eta zabalkundean eman ditugulako ordu gehien. Bi alor hauetan dugun egitekoa oraindik handia dela jakinda ere, prestakuntza beharrezkoa da iparra galdu gabe, kultur sorkuntzaren bitartez eta kultur gintzaren esparruan nora joan nahi dugun, zergatik eta zertarako jakiteko. Datozen urteetan abian jarri eta landu nahi dugun bidea da. Erronka polita geure buruarentzako, ez elkarte edo federazio moduan bakarrik, euskaraz bizi eta sentitu nahi duen euskaldun eta euskal komunitateko kide bezala baizik.■